Beraz, egun horietan zaborra batu ez bazen, zergatik ordaindu behar dugu guk eman edo eskaini ez diguten zerbitzu bategatik?

Por lo tanto, si durante todo este tiempo la basura no fue recogida ¿Porqué nosotros ahora debemos de pagar por un servicio que no se ha llevado a cabo?

Udalak egin behar duena hauxe da: 2015eko martxoari dagokion zabor tasa ez biltzea.

Lo que corresponde es que el consistorio se abstenga de recaudar la tasa de basuras correspondiente al mes de Marzo de 2015.

Horregatik guztiagatik, udaleko PP alderdiko udal talde politikoak honako ERABAKI PROPOSAMEN hau

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

aurkeztu du:

LEHENENGOA.- Martxoaren 9tik apirilaren 2ra bitartean jasandako greba dela eta, Udaleko Osoko Bilkurak erabaki du zabor-tasaren murrizketa baten legezkotasuna aztertzea eta, legezkoa balitz, murrizketa aplikatzea. Balizko murrizketaren helburua litzateke, greba egunek fakturazioan ekarriko duten deskontuaren ondorioz udal gastuan lortu litekeen itzultzea.

BIGARRENA: Murrizketa hau ezartzea, legez, ezinezkoa balitz, aurrezkia talde ahulenei eta babesgabeenei bideratuko litzaieke, gizarte-bazterketaren arloan lan egiten duten elkarteentzako diru-laguntzen bidez.

HIRUGARRENA.- Mozio honen berri udal-komunikabideei emango zaie.

PRIMERO.- El Ayuntamiento en pleno acuerda que se analice la legalidad de una reducción de la tasa de basuras como consecuencia de la huelga sufrida desde el 9 de marzo hasta el 2 de abril, a fin de repercutir el posible ahorro en el gasto municipal que suponga el descuento en la facturación por los días de huelga, y que se proceda a la misma en caso de ser legalmente posible.

SEGUNDO: En caso de que legalmente no fuera posible aplicar esta reducción, dicho ahorro se trasladará a aquellos colectivos más vulnerables y desprotegidos, a a través de ayudas al tejido asociativo que trabaja en el ámbito de la exclusión social.

TERCERO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**51.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HERRITARREN PARTE HARTZEA BULTZATZEN ETA BERMATZEN DUEN ORDENANTZA BAT EGITEA ETA ONESTEA.**

Maitane Nerekan andreak ondorengo mozioa irakurtzen du:

Herritarren zeregin eta parte hartzea gai publikoen inguruan, ezin da mugatu lau urtean behin boto bat ematera. Herritarrek eragiten dieten politiketan parte hartze zuzena izatea ezinbestekoa da demokrazian sakontzeko eta instituzioen gardentasuna hobetzeko, gertuen dituzten administrazioetan batik bat.

**51.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/LA REDACCIÓN Y APROBACIÓN DE UNA ORDENANZA QUE GARANTICE E IMPULSE LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA.**

Maitane Nerekan da lectua a la siguiente moción:

El papel de la ciudadanía en los asuntos públicos no puede reducirse a depositar una papeleta cada cuatro años. La profundización de la democracia, y la mejora de la transparencia de las instituciones pasa por la participación directa de la ciudadanía en la definición de las políticas que le afectan, empezando por aquellas administraciones que le son más cercanas.

Errealitate hau jakinda, hainbat Udalek herritarren parte hartzea bultzatzeko ordenantzak landu dituzte. Getxon, ez dugu halako tresnarik. Beraz, Udalbatza honen gainditu gabeko irakasgai baten aurrean gaude.

Conscientes de esta realidad, ayuntamientos de diverso signo han elaborado ordenanzas para impulsar la participación ciudadana. En Getxo carecemos de esta herramienta. Estamos, por tanto, ante una de las asignaturas pendientes de esta corporación.

EH Bildun uste dugu getxoztarrak izan behar direla euren auzo eta herrian egiten den politikaren eta hartzen diren erabakien protagonista nagusiak, gaitasuna eta gogoa dutelako. Modu honetan seguru gaude Getxoko herriak demokratikoki eta gardentasunez aurrera egingo duela. Horregatik, azken urte honetan, kontsulta prozesu bati ekin diogu norbanako eta kolektibo ezberdinen artean, udal gaietan herritarrek duten parte hartzearen inguruko euren iritziak jasotzeko. Ateratako ondorioek berretsi digute herritarrek informaziorako, proposamenak egiteko, entzunaldirako, ekimenetarako eta herri kontsultarako duten eskubideak sustatu eta bermatzen dituen parte hartze ordenantza bat behar dugula. Ordenantza honek, Getxoko herriari parte hartzerako organo eta mekanismo iraunkorrak ekarriko dizkio.

Desde EH Bildu creemos que los vecinos y vecinas de Getxo deben protagonizar las políticas y decisiones que se aplican en sus barrios y en todo el municipio, porque creemos en su capacidad y en su entusiasmo y porque estamos seguros de que contribuyen a que Getxo avance en democracia y en transparencia. Por eso , durante el último año, hemos acometido un proceso de consulta a personas y colectivos para recabar su opinión respecto a la participación popular en los asuntos municipales; la conclusión no ha hecho sino reafirmarnos en la necesidad de una ordenanza que promueva y garantice a la ciudadanía los derechos de información, propuesta, audiencia, y de iniciativa y consulta popular. Una ordenanza que dote a Getxo de mecanismos y órganos estables de participación ciudadana.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udaleko Osoko Batzarrari honako puntu hauek onartzea proposatzen dio EH BILDU udal taldeak:

Por todo ello, se propone la aprobación de los siguientes puntos al Pleno Municipal del Ayuntamiento de Getxo:

1º Udal honetako Plenoak eta bertan ordezkatuta dauden talde politikoek, herritarren parte hartzea sustatuko duen parte hartze ordenantza bat idazteko borondatea adierazten dute.

1º El pleno de este Ayuntamiento y los partidos en él representados manifiestan su voluntad de redactar un ordenanza que impulse la participación ciudadana en nuestro municipio.

2º Ordenantza hau gardentasun osoz egingo da , erredakzioan prozesu parte hartzaile baten bidez herritarrek parte hartuko dutelarik.

2º La elaboración de esta ordenanza se hará con total transparencia, incorporando a la ciudadanía mediante un proceso participativo, a la redacción

de la misma.

3º Pleno honen parte garen alderdiek, konpromisoa hartzen dugu erakunde sozial eta politikoek aurkezten duten ordenantza ereduak aztertu eta eztabaidatzeko, euren artean mozio hau aurkezten duen udal taldeak jadanik proposatutakoa.

3º Los partidos presentes en este pleno nos comprometemos a estudiar y debatir los diversos modelos de ordenanza que propongan las organizaciones sociales y políticas con presencia en este municipio, incluida la ya presentada por el grupo proponente de esta moción.

Luis Almansak esan du proposamen hau alderdi sozialistak egin zuela 2012ko abenduko osoko bilkuran eta osoko bilkura hartan Gobernu Taldeak zuzenketa trasakzional bat planteatu zuela. Zuzenketa trasakzional hark Udal Erregelamendu Organikoa berrikusteari buruzko akordioa ekarri zuen, herritarrek parte hartzeko erregelamendu bat sartuta. Lana txosten bat eginez hasi zen, baina Bilduk publiko egin zituen haren agiriak eta gainerako alderdiek ez zuten onartu. Bilduk behin eta berriz ekin ziola ikusirik, lana geldiarazi egin zen eta ezin izan da UEOa aldatu. Bere iritziz, mozioak kutsu elektoralista dauka.

Luis Almansa manifiesta que esta propuesta la hizo el grupo socialista en el Pleno de diciembre de 2012 y en aquel Pleno el equipo de gobierno planteó una enmienda transaccional que derivó en el acuerdo sobre la revisión del ROM, con la inclusión de un reglamento de participación ciudadana. El trabajo se inició en una ponencia que Bildu, al hacer públicas las actas de la misma, actuación que el resto de los grupos no aceptó, y ante la insistencia de Bildu se pararon los trabajos y no se ha podido modificar el ROM. Estima que la moción tiene un matiz electoralista.

Marisa Arruek esan du harrigarria iruditzen zaiola Bilduk 6 mozio aurkeztu izana azken osoko bilkuran. Ez du halakorik egin legegintzaldi osoan eta, hortaz, bere ustez, hauteskunde kanpainan gaudelako egin du. Gogora ekarri du herritarren parte-hartzerako erregelamenduan lan egiteko aukera izan zuenean Bilduk, 2013ko martxoan osatu zen batzordean, alderdi hori izan zela batzorde hori deuseztatzearen errudun, bere irizpidea inposatu nahi baitzien gainerako alderdiei. Haren ondorioa da orain ez dagoela UEOa eguneraturik ez eta herritarren parte-hartzerako erregelamendurik. Bere ustez, Bildu da egoeraren errudun eta, hortaz, ez du

Marisa Arrúe manifiesta que le parece sorprendente que en el último Pleno Bildu haya presentado 6 mociones, lo que no ha hecho en toda la legislatura y se debe a la situación de campaña electoral. Recuerda que cuando Bildu tuvo la oportunidad de trabajar en el reglamento de participación ciudadana, en la comisión que se creó en marzo de 2013, ellos fueron los culpables de romper dicha comisión por querer imponer su criterio al resto de los grupos, consecuencia de ello es que no se dispone de un ROM actualizado ni de un reglamento de participación ciudadana y considera que Bildu es el culpable de esta situación y no tiene sentido que presente esta moción en el

zentzurik mozio hau aurkezteak legegintzaldiko azken osoko bilkuran.

último Pleno de la legislatura.

Maitane Nerekanek adierazi du deigarria gertatzen zaiola PPk hainbesteko eragina ematea Bilduri, 4 kide baino ez baititu Udalbatzan. Izan ere, ateratzen den guztiaren eta ateratzen ez den guztiaren erantzukizuna egozten dio. Gehitu du egungo UEOak, Gobernu Taldearen borondatearekin batera, herritarren parte-hartzea eragozten duela. Bilduk ulertzen du, herritarrek parte hartzea eztabaidatzen ari badira, logikoa dela herritarrek horretan parte hartzea. Parte-hartze horri ezezkoa eman ziotenez, logikoa iruditu zitzaien batzordean onartutako agiriak kaleratzea. Jokabide horren aurrean, gainerako alderdiek esan zuten, irizpide horri eusten bazion, ez zutela prozesua jarraituko. Mozioa aurkeztu dute herritarren parte-hartzea hurrengo legegintzaldiko ildo estrategikoa izatea nahi dutelako, ez Bildurena bakarrik, baita Udalbatza osoarena ere. Horretarako, beharrezkoa da udal alderdiek gai honen gainean jarrera hartzea.

Maitane Nerekan indica que le llama la atención que el PP asigne tanta influencia a Bildu, que solamente cuenta con 4 corporativos, ya que le asigna la responsabilidad de todo lo que sale y de todo lo que no sale. Manifiesta que el actual ROM junto con la voluntad del equipo de gobierno imposibilitan la participación ciudadana. Bildu entiende que si se está debatiendo la participación ciudadana, lo lógico es que los vecinos tomen parte en la misma y ante la negativa a dicha participación les pareció que era lógico publicar las actas aprobadas en la comisión y ante esa actuación el resto de los grupos indicaron que si se mantenía ese criterio no se continuaría con el proceso. Han presentado la moción porque quieren que la participación ciudadana sea una línea estratégica para la próxima legislatura no sólo de Bildu sino de todo el Pleno y para ello es necesario que los grupos municipales se posicionen sobre esta cuestión.

Luis Almansak atzera erantzun du Bildu elektoralismoa egiten ari dela herritarren parte-hartzearekin eta galdetu du zer den garrantzitsuagoa Bildurentzat, edo lanerako talde baten agiriak kaleratzea, edo UEO berria eta herritarrek parte hartzeko erregelamendua izatea. Gogora ekarri du Bilduk lehenbiziko aukera hautatu zuela, nahiz eta bazekien hori eginez uko egiten ziola UEOa berrikusteari legegintzaldi honetan eta bai herritarren parte-hartze erregelamendua edukitzeari ere. Erabaki hori ikusirik, uste du Bildurentzat UEOak eta herritarren parte-hartzerako erregelamenduak

Luis Almansa replica que Bildu está haciendo electoralismo con la participación ciudadana y pregunta que es más importante para Bildu si publicar las actas de un grupo de trabajo o contar con un nuevo ROM y reglamento de participación ciudadana. Recuerda que Bildu optó por la primera posibilidad sabiendo que con ello se renunciaba a revisar el ROM en esta legislatura y también a contar con un reglamento de participación ciudadana. Ante esta decisión estima que para Bildu el ROM y el reglamento de participación ciudadana sólo tienen un valor electoral.

hauteskunde balioa besterik ez duela.

Maitane Nerekanek gaineratu du Bilduk garrantzi handiagoa ematen diola gardentasunari herritarren parte-hartzeaz hitz egiten denean. Gainerako alderdiei gogora ekarri die bilera haietan zalantzak adierazten zituztela, legegintzaldi honetan testu berria onartuko ote zen. Esan die esku hartu duten bozeramaileei eta alderdiei urte asko daramatzatela UEOa berritzeari ekin gabe eta Bildu Udalbatzan egotea ezinbestekoa izan dela kontu hau dinamizatzeko.

Maitane Nerekan replica que Bildu de más importancia a la transparencia cuando se habla de participación ciudadana. Les recuerda al resto de los grupos que en esas reuniones manifestaban dudas sobre que en la presente legislatura se aprobara el nuevo texto. Indica a los grupos y portavoces intervinientes que llevan muchos años sin abordar la reforma del ROM y que ha sido necesaria la presencia de Bildu en la corporación para dinamizar esta cuestión.

Marisa Arruek uste du Bilduk ez dakiela nondik atera eta agerian uzten duela herritarren parte-hartzeak ahoa betetzen diela, baina horretarako lan egin behar denean ez duela egiten eta ez diela uzten gainerako alderdiei. Batzordea deuseztatu egingo zela jakin arren, agiriak publiko egin zituzten. Idazkariari galdetu zioten proposamen hura etikoa zen eta, hark kontrako iritzia eman bazien ere (eta gainerako alderdietara bidali zien), inor kontuan izan gabe, agiriak kaleratu zituzten eta ondorioak denok dakigunak izan ziren: batzordea deuseztatu zen, UEOa ez dago eguneratuta eta ez dago herritarrek parte hartzeko erregelamendurik.

Marisa Arrúe opina que Bildu no sabe por dónde salir y demuestra que la participación ciudadana les llena la boca pero cuando hay que trabajar para ello no lo hace ni deja al resto de los grupos trabajar. Conociendo que se iba a romper la comisión hicieron públicas las actas después de preguntar al Secretario si era ética dicha propuesta y pese a oir su opinión contraria y que además le remitió al resto de los grupos, pero sin consultar con nadie publicaron las actas rompiendo la comisión con el resultado conocido de que no está actualizado el ROM ni existe el reglamento de participación ciudadana.

Luis Almansak adierazi du alderdi sozialitsak ilusio eta gogo handiekin ekin ziela lanei, bere alderdiak egindako proposamen baten ondorio baitzen eta haren hautezkunde programaren zati baitzen. Errepikatu du Bilduk balio handiagoa eman ziola barne lan batzuk argitaratzeari, UEO berria eta herritarren parte-hartze erregelamendu bat izateari baino. Bere ustez, herritarren parte-hartze erregelamendua idazteari buruz udal alderdien borondatearen berri izateko

Luis Almansa manifiesta que el grupo socialista inició los trabajos de la comisión con mucha ilusión y ganas, ya que provenía de una propuesta de su grupo y también era parte de su programa electoral. Insiste en que Bildu dio más valor a publicar sus trabajos internos que a contar con un nuevo ROM y un reglamento de participación ciudadana. Considera que presentar la moción para conocer las voluntades de los grupos municipales acerca de redactar un reglamento de

mozio bat aurkeztea elektoralista da.

participación ciudadana es algo electoralista.

Maitane Nerekanek gaineratu du idazkariari galdetu ziona ez zela etika kontua izan, legezkoa baizik. Idazkariaren erantzuna izan omen zen ez zegoela legezko arazorik agiriak kaleratzeko. Gainerako alderdiei galdetu die zer egin duten legegintzaldi honetan UEOa aldatzeko. Berriro esan du mozioan eskatzen zaiela alderdiei jarrera hartzeko, herritarrek parte hartzeko berariazko ordenantza bat idaztearen alde dauden edo ez. Horrez gain, ordenantza hori egitean herritarrak barne hartzeko prozesu bat egitearen alde dauden edo ez adierazi behar dute.

Maitane Nerekan replica que preguntó al Secretario no una cuestión de ética sino legal y que la respuesta fue que no había problemas legales para publicar las actas. Pregunta al resto de los grupos qué han hecho hasta la presente legislatura para modificar el ROM. Insiste en que la moción pide a los grupos que se posicionen acerca de si están a favor de redactar una ordenanza específica de participación ciudadana y que en la elaboración de esa ordenanza se de un proceso con incorporación de la ciudadanía.

Mozioa bozkatu da eta ez da onartu, aldeko botoak 4 izan baitira (Bildu), aurkakoak 9 (PP) eta abstentzioak 12 (EAJ, PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, Bildu; 9 votos en contra, PP y 12 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Koldo Iturbek justifikatu du EAJren abstentzioa esanez mozioak jasotzen duen proposamena Bilduk aurkeztu duen hauteskunde programaren zati dela eta egokiena dela programen eztabaida hauteskunde kanpainan egitea, ondoren herritarrek erabakitzeko hauteskundeetan nor babesten duten.

Koldo Iturbe justifica la abstención del PNV en que la propuesta que recoge la moción es parte del programa electoral que ha presentado Bildu y que lo procedente es el debate de los programas en la campaña electoral para que posteriormente los ciudadanos en las elecciones determinen a quién apoyan.

**52.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HAPOREN AURRERAPENA ONESTEKO HERRI KONTSULTA.**

**52.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/CONSULTA CIUDADANA PARA LA APROBACIÓN DEL AVANCE DEL PGOU.**

Bingen Saitua jaunak ondorengo mozia irakurtzen du:

Bingen Saitua da lectura a la presente moción:

Bi urte eta gero, HAPOren aurrerapen txostenaren idazketa lana amaituta dagoela, Lantaldea osatzen duten

Después de dos años, finalizado el trabajo para la redacción del avance del PGOU de Getxo, las personas y grupos

herritar eta elkarteek uste dute eurek bakarrik ezin dutela getxoztar guztien izenean erabakirik hartu. Haien iritziz, Herri Partaidetza Lantaldeak adierazitako aukeren artean herritar guztiek erabaki beharko lukete gure udalerriari hoberen egokituko zaion definizio eta etorkizuna. Honela, hau onetsi zuten:

integrantes de este Lantalde, consideran que no se sienten legitimadas para tomar una decisión en nombre de toda la ciudadanía de Getxo. Estimaron, y así lo manifestaron expresa y mayoritariamente mediante votación pública de sus integrantes, que es la propia ciudadanía la que debe decidir de entre las alternativas manifestadas en este Lantalde de Participación Ciudadana, aquella que considere más idónea para la definición y conformación del futuro de nuestro municipio, y por tanto aprobaron:

" Udal Plenoari eta hau osatzen duten talde guztiei, loteslea izango den herri kontsulta deialdia egiteko konpromisoa har dezatela eskatzen diegu, Getxoko HAPOren aurrerapena onartzeko."
Aukera hau HAPO berrikusteko Herri Partaidetza programaren proposameneko 3. paragrafoan; "Marco Legal" delakoaren 2. ataleko 19 eta 20. paragrafoetan, eta egun indarrean dagoen LVSU delakoaren 108. artikuluan jasota dago.

"Instar al Pleno de nuestro ayuntamiento y a los grupos políticos que lo integran a comprometerse a convocar una consulta ciudadana, con carácter vinculante, para la aprobación del avance del PGOU de Getxo".
Dicha posibilidad está recogida, tanto en la Propuesta de Programa de Participación Ciudadana en la revisión del PGOU, párrafo 3 y en el apartado 2 "Marco Legal" párrafos 19 y 20, así como en el artículo nº: 108 de la vigente LvSU.

EH Bilduren ustez Parte-Hartzea prozesu eta tresna da non herritarrek, euren bizimodu kolektiboa hobetzeko erabaki estrategikoak hartzerakoan, informatzen, entzuten eta hausnarketa egiten duten. Batez ere, demokrazia parte hartzaile baterantz aurrera egiteko, benetako herri partaidetza giltzatuko duten tresna eta mekanismoak behar ditugula sinisten dugulako.

En EH Bildu entendemos la participación como un proceso y una herramienta que informa, escucha, reflexiona, incorpora a la ciudadanía, con sus virtudes, intereses, argumentos, necesidades y puntos de vista, en la toma de decisiones estratégicas para mejorar la calidad de vida colectiva. Sobre todo, porque consideramos que es necesario avanzar hacia una democracia participativa en la que dispongamos de los mecanismos y las herramientas con las que articular una participación ciudadana efectiva.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurari honako puntuak onartzea proposatzen diogu:

En base a lo expuesto anteriormente, proponemos que se aprueben los siguientes puntos:

1) Getxoko Osoko Bilkurak eta bere parte diren talde politikoek, Getxoko HAPO berrikusteko herri partaidetza Lantaldetik ateratzen den proposamena errespetatu eta onartzeko konpromisoa hartzen dute.

2) Gobernu Taldeak loteslea izango den Herri kontsulta bat konbokatzeko urratsak emango ditu, non getxoztarrek Lantaldetik ateratako aukeren artean Getxorako egokien iruditzen zaiena bozkatuko duten.

1) El Pleno de Getxo y los grupos políticos que lo integran, se comprometen a respetar y aceptar la propuesta del Lantalde de Participación Ciudadana para la revisión del PGOU de Getxo.

2) El Equipo de gobierno municipal dará los pasos necesarios para convocar una consulta ciudadana, que con carácter vinculante, decida, de entre las alternativas salidas del trabajo de dicho Lantalde, la que más satisface a sus necesidades y a su deseo de conformación de nuestro municipio.

Luis Almansak adierazi du mozioak planteatzen duena Udalak onartutako herritarren parte-hartzerako programan aurreikusita dagoela, eta bai hirigintzako eta tokiko legerian ere. Lan-taldeak aukera hori planteatu du, baina zehaztu gabe zein unetan eta zein dokumenturen gainean, baina Bilduk bai zehaztu duela bere mozioan. Uste du Udalbatzak hartu behar duela erabakia eta unerik arrazoizkoena hasiera bateko onespenaren ondokoa dela

Luis Almansa indica que lo que plantea la moción está contemplado en el programa de participación ciudadana aprobada por el ayuntamiento, además de legislación urbanística y local. El lantalde ha planteado esta posibilidad pero sin indicar en qué momento y sobre qué documento pero Bildu si lo concreta en su moción. Estima que la decisión ha de adoptarse por la corporación y el momento más razonable le parece tras la aprobación inicial.

Iñaki Gamerok uste du mozioak planteatzen duela lan-taldeak eskatzen duena baina aurrera egiteko unea gelditzen duela. Gogora ekarri du HAPO 2001ean onartu zela eta 2007an erabaki zela plana berrikusten hastea, hau da, duela 8 urte. Oraindik ez omen da ezer egin, oraindik aurrera egin aurreko fasean baikaude, eta, ondorioz, HAPO geldirik dago eta ez dago berrikuspenik. Horren guztiaren ondorioa da ez dela etxebizitza babesturik sortzen ari eta Getxon ez da ezer eraikitzen ari, eta horrek ekartzen du Getxoko etxebizitzak garestiak izatea eta gazteek udalerritik kanpo joan behar izatea. Gogorarazi du herritarrek parte hartzeko prozesua

Iñaki Gamero cree que la moción plantea lo que pide lantalde pero para el momento del avance. Recuerda que el PGOU se aprobó el año 2001 y el año 2007 se decidió iniciar la revisión del plan, es decir, hace 8 años y aún nada se ha hecho ya que todavía nos hallamos en el preavance, lo que supone que el PGOU está paralizado, la revisión no existe y ello tiene como consecuencia que no se está generando vivienda protegida ni se está construyendo en Getxo, lo que hace que las viviendas en Getxo sean muy caras y los jóvenes tengan que marcharse del municipio. Recuerda que el proceso de participación ciudadana se inició el año 2012 y no se puede hipotecar con una

2012an hasi zela eta ezin dela arriskuan jarri noiz gauzatu behar den ez dakiten erabaki baten ondorioz, berrikuspenaren egoera kontuan harturik. Horrenbestez, mozioaren kontrako botoa emango dute.

decisión que no se sabe cuando se tiene que materializar, teniendo en cuenta la situación de la revisión, por lo que votarán en contra de la moción.

Bingen Saituak esan du mozioa argia dela, lan-taldeak eskatzen duena jasotzen duela. Aztertzen ari diren eta oso desberdinak diren bost aukerei buruzko herri kontsulta bat egitea planteatu dute. Onartu du Getxon ez dela ohikoa herri kontsultak egitea herritarrei, baina, bere ustez, hil edo biziko garrantzizkoa da kontu hau, Getxoren etorkizuna zehazteari baitagokio.

Bigen Saitua indica que la moción es clara, recoge lo que pide el lantalde y plantean una consulta pública sobre las cinco alternativas que se están estudiando y que son muy diferentes. Reconoce que no es habitual en Getxo realizar consultas ciudadanas pero cree que esta cuestión es de vital importancia ya que se trata de definir el futuro de Getxo.

Iñaki Gamerok adierazi du PP alderdiak lan-taldearen eta lan-talde horretan parte hartzen ez duten elkarteen eta bizilagunen lana baloratzen duela, baina ez dela ahaztu behar HAPO berrikusteak zer dakarren. Ez dute nahi alderdi bakar batek ere lan-taldea erabiltzea herritarren parte-hartzearen makillaje gisa, ez eta erabakiak hartzeko erantzukizuna saihesteko ere. Uste du hasierako onespena dagokionean, orduan, exijitu behar dela herritarrek parte hartzea, aurrerapenari alegazioak aurkez baitiezazkioke edozein herritarrek edo alderdi politikok.

Iñaki Gamero manifiesta que el grupo popular valora el trabajo del lantalde y también el de asociaciones y vecinos que no están en lantalde pero no debe perderse de vista lo que supone la revisión del PGOU. No quieren que se utilice el lantalde como maquillaje de participación ciudadana por parte de ningún grupo ni tampoco para obviar la responsabilidad de tomar decisiones. Cree que cuando corresponda la aprobación inicial es cuando ha de exigirse la participación ciudadana ya que al avance pueden presentar alegaciones cualquier vecino o grupo político.

Bingen Saituak zehaztu du lan-taldeak adierazi duela ezin dela bakarrik bera izan erabakitzen duena eta horregatik planteatu duela kontsulta. Bere iritziz, agerikoa da talka dagoela Bilduk herritarren parte-hartzearen gainean dituen irizpideen eta kontzeptuen eta gainerako alderdiek dituztenen artean, herritarrei botoa emateari dagokionez. Bilduk horren alde egiten du; gainerako alderdiek, ordea, uste dute hobe dela ezkutuan hitzartzea alderdien artean

Bingen Saitua indica que el lantalde ha manifestado que no pueden ser los únicos que decidan y por eso plantean la consulta. Estima que es obvio que hay un choque entre los criterios y conceptos de participación ciudadana que tiene Bildu con el resto de los grupos respecto a dar voto a los vecinos, cuestión que defiende Bildu mientras otros grupos creen que es mejor acordar a escondidas entre partidos y luego plantear el acuerdo

eta gero akordioa planteatzea herritarrek alegazioak egiteko. Kontzeptuen arteko alde hori bera ikusi zen UEOa berrikusteko prozesuan.

para alegaciones a los vecinos. Esta misma diferencia de conceptos se manifestó con el proceso de revisión del ROM.

Iñaki Gamerok erantzun dio errespetatu eta onartzen dutela lan-taldearen iritzia, eta bai alderdi politikoena, herritarrena eta abarrena ere. Uste du ez dela denbora galdu behar eta berrikusteko prozesuan aurrera egin behar dela, aurreikusita baitzegoen aurrerapena 2014ko udazkenean onartzea eta oraindik ez baita aurkeztu.

Iñaki Gamero manifiesta que la opinión del lantalde la respetan y aceptan así como también la de los grupos políticos, vecinos, etc., y cree que no hay que perder tiempo y hay que avanzar en el proceso de revisión ya que el avance estaba previsto su aprobación para otoño del 2014 y aún no se ha presentado.

Luis Almansak gaineratu du lan-taldeak amaitu duela berrikusteko prozesuan egin beharreko lana eta orain aurrera egiteko fasean dagoela. Fase horretan eskumenak eta erantzukizunak Gobernu Taldeari dagozkio, eta ondoren, hasierako onespenean, egokituko zaio Udalbatzari erabakitzea eta abiaraziko da herritarrek alegazioak aurkezteko aldia. Lan-taldeak proposatu du berrikusteko prozesuan kontsulta bat egiteko aukera, baina zehaztu gabe zein unetan eta edukia zein den, eta Bilduk zehaztu ditu kontu horiek egin duen eginkizunen banaketan.

Luis Almansa manifiesta que el lantalde ha terminado su trabajo dentro del proceso de revisión y ahora está en la fase del avance en el que las competencias y las responsabilidades recaen en el equipo de gobierno y es posteriormente en la aprobación inicial cuando corresponde decidir al Pleno y se abre el período para alegaciones ciudadanas. El lantalde ha propuesto la posibilidad de realizar una consulta en el proceso de revisión pero sin concretar en qué momento, ni su contenido y Bildu concreta esas cuestiones en el reparto de papeles que han realizado.

Bingen Saituak atzera erantzun dio mozioak planteatzen duela lan-taldeari kasu egitea kontsulta bat egiteko eskaeran. Etxebizitzak eraikitzeari dagokionez, esan du HAPO 2001. urteaz geroztik daukatela eta aztertu egin beharko litzatekeela zergatik ez den garatu eta zergatik ez dituen sustatu etxebizitza babestuak Gobernu Taldeak.

Bingen Saitua replica que la moción plantea hacer caso al lantalde en su petición de que se realice una consulta. Respecto a la construcción de viviendas manifiesta que existe el PGOU desde el 2001 y habría que analizar porqué no se ha desarrollado el mismo y porqué el equipo de gobierno no ha fomentado la vivienda protegida.

Mozioa bozkatu da eta ez da onartu, aldeko botoak 4 izan baitira (Bildu), aurkakoak 9 (PP) eta abstentzioak 12 (EAJ, PSE-EE).

Sometida la moción ha votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, Bildu; 9 votos en contra, PP y 12 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Koldo Iturbek justifikatu du EAJren abstentzioa esanez Bilduk planteatzen duela kontu hau bere hauteskunde programaren barnean eta herritarrek erabakiko dutela.

Koldo Iturbe justifica el voto de abstención del PNV en que Bildu plantea esta cuestión dentro de su programa electoral y que serán los vecinos los que decidan.

**53.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: TXIKI-OTAEGI/SAN NIKOLAS PLAZA HERRITARREN ERABILERA ETA PARTE HARTZERAKO ESPAIO PUBLIKO BEZALA BERMA DADIN: KIOSKO ORAIN.**

**53.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ GARANTIZAR QUE LA PLAZA TXIKI-OTAEGI/SAN NIKOLAS SE DESTINE A USO Y PARTICIPACIÓN DE LA CIUDADANÍA: KIOSCO YA.**

Arantza Gutiérrez andreak ondorengo mozioa irakurtzen du:

Arantza Gutiérrez da lectura a la siguiente moción:

Getxo Antzoki eta Musika Eskolaren lanekin batera, Algortako erdigunea den eta, historikoki, herri-bizitzaren bihotza izan den plazan eta inguruetan aldaketa nabarmenak egiteko aprobetxatu du Gobernu Taldeak. Balorazio estetiko-teknikoez aparte eta horiek ere Gobernu Taldearen (eta ez herritarren nahiaren) ildo politikoaren arabera egin direla pentsatuta, hainbat auzokide kexu dira aldaketekin plazak galdu duen izaera publikoaz.

El Equipo de Gobierno ha aprovechado los trabajos de Getxo Antzokia y de la Escuela de Música para realizar cambios importantes en esta plaza, que ha sido siempre el corazón de la vida del pueblo, y en sus alrededores. Al margen de valoraciones estéticas y técnicas, y teniendo en cuenta que las mismas se han realizado atendiendo a la línea política del Equipo de Gobierno (y no a la voluntad popular), muchas personas se han quejado por la pérdida de carácter público que han acarreado estos cambios en la plaza.

Alde batetik, herritarren parte hartzearen sinbolo eta herri ondare materialeko elementu zen musika kioskoa desagerrarazi nahi izan da obrarekin. Aipatu kioskoa, bere kokapen ezberdinetan, sari banaketa, bertso saio, musika emanaldi, jaien barruko ekitaldi zein beste ehunaka ekintzetarako erabilia izan da. Horrez gain, umeen jolasgune zein gazte eta ez hain gazteen aterpe ere bazen, inguruko tabernen doako terraza izatearekin batera. Bere ordez gaur egun, elkarri bizkarra ematen dioten

Por un lado, mediante las obras se ha querido hacer desaparecer el kiosco de música, símbolo de la participación de la gente y elemento del patrimonio material público. El mencionado kiosco, en sus diferentes ubicaciones, ha sido utilizado para repartos de premios, sesiones de bertsolaris, conciertos de música, actos de fiestas y cientos de otras actividades. Además, era una zona de juego para los niños y un refugio para los jóvenes y no tan jóvenes, además de una terraza gratuita

bankuak dira plazan aurkitzen ditugun elementu bakarrak.

para los bares de la zona. En su lugar, hoy en día, los únicos elementos que encontramos en la plaza son unos bancos que se dan la espalda entre sí.

Bestalde, tabernetako terrazen gaur egungo kokapenak zein plazaren antolakuntza fisiko berriak (inguruan ez dago eserleku bezala erabili daitekeen hormarik, bankuak eta zuhaitzak erdigunean kokatuta daude...), jolas librea zein plazan erabilera publikoa (elkarteen ekitaldiak, kontzertuak etab.) zaildu du.

Por otra parte, la ubicación actual de las terrazas de los bares y la nueva disposición física de la plaza (no existe en las inmediaciones ninguna pared que pueda utilizarse como asiento, los bancos y los árboles están ubicados en el centro...) dificultan el juego libre así como el uso público de la plaza (actividades de asociaciones, conciertos etc.).

Aipatutako aldaketa guztiak plaza erabilera publiko eta askerako elementu bezala baliogabetzeko estrategiaren barruan kokatzen dugu; Getxo Antzokiaren inguruko obrarekin ikusi dugun bezala, Algortako auzoan herri kulturaren eta herri bizitzaren bihotz den plazari nortasuna kendu eta "pribatizatu" nahi dute nolabait.

Situamos todos estos cambios de los que hablamos en la estrategia de invalidar la plaza como elemento de uso público y libre. Del mismo modo en que hemos visto en el caso de las obras en torno a Getxo Antzokia, se ha querido despojar a esta plaza de su papel central en la cultura popular y en la vida callejera del barrio de Algorta, "privatizándola" de algún modo.

Horregatik, ondoko eskaerak egiten dizkiogu Osoko Bilkurari onartuak izan daitezen:

Por esos motivos, realizamos las siguientes propuestas al Pleno, para que sean aprobadas:

1. Txiki Otaegi - San Nikolas plazako musika kioskoa berrezartzeko, kokapen egokienaren azterketa egin dadila eta obra proiektuaren egokitzapena egin dadila, lehenbailehen musika kioskoa berrezartzeko.

1. Que se reponga el kiosco de música de la plaza Txiki Otaegi – San Nikolas, que se realice un análisis de la ubicación ideal para el mismo, y que se readecúe el proyecto de obras para reponer el kiosco de música cuanto antes.

2. Gobernu Taldeak terrazen ordenantzaren berrazterketa atzeratu duela ikusita, plazaren inguruko ostalaritza establezimenduekin bilera egin dadila, terrazen proiektu bateratua adostu dezaten, plazaren erabilera publiko eta librea eta ostalaritza establezimenduen terrazen elkarbizitza egokia izan ditzaten.

2. En vista de que el Equipo de Gobierno ha retrasado la revisión de la ordenanza de terrazas, que se lleve a cabo una reunión con los establecimientos hosteleros ubicados en las inmediaciones de la plaza, con el fin de acordar un proyecto común de terrazas, de manera que se garantice la convivencia de las terrazas de los

establecimientos de hostelería y el uso público y libre de la plaza.

Eduardo Andradek adierazi du Bilduk bere hauteskunde programa planteatzen duela mozioetan eta hori ez zaiola logikoa iruditzen. Bere ustez, legegintzaldi osoko gabeziak estaltzen saiatzen ari da. Gogora ekarri du kioskoa ez dagoela duela lau urtetik eta azken proiektuan ere ez zegoela. Bildukoek Getxo Antzokiaren finantzaketa babestu zutenean, orduan, eskatu behar zuten kioskoari eusteko. Kioskoa kentzeak alkatearen jarduteko era islatzen du. Herritarrei eta Udalbatzaren akordioei bizkar emanez eta haien kontra eginez gauzatzen ari den proiektu batean tematu da. Horrez gain, hauek ekarri ditu gogora: 90 toki dituen aparkaleku bat eraiki da eta ez da erabiltzen eta ezin dira erabili; planteatu zen inguruko saltokiekin lotuko zen eta ibilbide uniformea izango zuen plaza bat egongo zela, alabaina, zanga-zuloak daude; elizako eskailerak desagertu dira… Ondorioztatu du arimarik gabeko plaza dela eta horren guztiaren erantzulea alkatea dela, berak erabakitzen baitu proiektuaren eta haren hurrenez hurrengo aldaketen gaineko guztia.

Eduardo Andrade indica que Bildu plantea en las mociones su programa electoral, lo que no le parece lógico. Cree que están intentando tapar las carencias de toda la legislatura. Recuerda que el kiosko no está desde hace cuatro años y tampoco estaba en el proyecto definitivo cuando apoyaron la financiación del Getxo Antzokia los de Bildu podían haber pedido que se mantuviera el kiosko. La supresión del kiosko refleja la forma de actuar del Alcalde que se empeña en un proyecto que se realiza de espaldas y en contra de los vecinos y de los acuerdos plenarios. Recuerda también que se ha construido un aparcamiento con 90 plazas que no se usa y que no se pueden utilizar, que también se planteó que habría una plaza que se uniría con los comercios del entorno y con un trazado uniforme y sin embargo se mantienen zanjas, también han desaparecido las escaleras de la iglesia, etc, con lo cual, conluye que ésta es la plaza sin alma y que el responsable de ello es el Alcalde que decide todo acerca del proyecto y sus sucesivas modificaciones.

Arantza Gutiérrezek uste du plaza ez dela egokia ez harreman sozialetarako ez eta kirolaren, ekitaldien edo aire zabaleko jokoen bidez gozatzeko ere, eta gaineratu du kioskoaren aldarrikapena ez dela berria. Era berean, ez du ulertzen zergatik kritikatzen den azken osoko bilkuran mozioak aurkeztea. Uste du egungo plazak ez duela bultzatzen bertan egotea eta kioskoa plazako elementu zehatzailea eta funtsezkoa dela. Gainera, kritikatu du elizako eskailerak kendu izana.

Arantza Gutiérrez estima que la plaza no es adecuada para las relaciones sociales y el disfrute de la misma con deporte, con actos y juegos al aire libre y también manifiesta que la reivindicación del kiosko no es algo nuevo. Tampoco entiende la critica a que se presenten mociones en el último Pleno. Opina que la actual plaza no alienta la vida en la misma y el kiosko es un elemento definidor y esencial de la plaza, a la vez que critica también la eliminación de las escaleras de la iglesia.

Eduardo Andradek errepikatu du Bildu legegintzaldiko gabeziak estaltzen saiatzen ari dela, ez baitu eraman osoko bilkurara Getxo Antzokiaren kostuari, lanen finatzaketari, azken erabilerari, bideragarritasunari eta abarri buruzko galderarik. Bere iritziz, egungo plaza Areetakoaren antzekoa da eta gero karpaz beteko da.

Eduardo Andrade insiste en que Bildu intenta cubrir las deficiencias de la legislatura ya que no ha traido al Pleno preguntas sobre el coste del Getxo Antzokia, la financiación de las obras, el destino final, la viabilidad, etc. Opina que la actual plaza es similar a la de Las Arenas y que posteriormente se llenará de carpas.

Arantza Gutiérrezek gogora ekarri dio PPri aurreko legegintzaldian, Bilduk presente egoterik izan ez zuenean, orduan, onartu zela Getxo Antzokiaren proiektua, eta gehitu du Bilduk beti kritikatu duela Getxo Antzokiaren proiektua eta bertara bideratu den dirua. Amaitzeko, zehaztu du honetara, nahiz eta azken osoko bilkura izan, lehenbizikora bezalaxe, denetara etorri direla lan egitera.

Arantza Gutiérrez recuerda al PP que es en la anterior legislatura cuando Bildu no pudo estar presente cuando se aprobó el proyecto del Getxo Antzokia y recuerda que Bildu ha criticado siempre el proyecto del Getxo Antzokia y el dinero que al mismo se ha destinado. Finaliza indicando que en este, aunque sea el último Pleno, como en el primero han venido a todos ellos a trabajar.

Mozioa bozkatu da eta ez da onartu, aldeko botoak 4 izan baitira (Bildu), aurkakoak 9 (PP) eta abstentzioak 12 (EAJ, PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, Bildu; 9 en contra, PP y 12 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Koldo Iturbek justifikatu du EAJren abstentzioa, esanez mozioak Bilduren hauteskunde programaren zati bat hartze duela. Bere ustez, hauteskunde programen arteko eztabaida ez da osoko bilkuran egin behar, hauteskuden kanpainan baizik. Horrez gain, adierazi du, eztabaida egin eta mozioa irakurri ondotik, ez dakiela zein plazataz ari diren. Izan ere, batzuek Txiki-Otaegi esaten diote, eta beste batzuek San Nikolas, batzuek esaten dute plaza hutsik dagoela, eta berak ezagutzen duen San Nikolas plaza beti jendez beteta dago.

Koldo Iturbe justifica la abstención del PNV en que la moción traslada parte del programa electoral de Bildu y cree que el debate entre programas electorales no se corresponde realizarlo en el Pleno sino dentro de la campaña electoral. También indica que tras el debate y la lectura de la moción no sabe a qué plaza se refiere ya que unos le llaman Txiki y Otaegi o San Nikolas, otros dicen que es una plaza vacía cuando la plaza de San Nikolas que él conoce está siempre llena de gente.

**54.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: JAURLARITZAK BULTZATU DUEN**

**54.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ANTE EL PROYECTO DE LEY MUNICIPAL PROMOVIDO POR EL GOBIERNO**

**UDAL LEGEAREN EGITASMOAREN AURREAN.**

**VASCO.**

Maitane Nerekan andreak ondorengo mozioa irakurtzen du:

Maitane Nerekan da lectura a la siguiente moción:

Udal Lege egitasmo hau berandu dator. 35 urte kosta izan zaio Jaurlaritzari egitasmo hau martxan jartzea. Eta denbora honen ondoren gauzak ongi egin eta protagonismoa udalei eman ordez, presa handiekin jarri da martxan. Hainbeste denbora pasa ondoren merezi zuen lasaitasunez, modu zabalean eta sakonki zein Udal eredu nahi dugun eztabaidatzea. Horren ordez uneko interes politiko eta "presak" agindu dute. Udalen ordezkarien ahotsa zuzenean entzuteko eta udal ordezkarien ekarpenak biltzeko ez da inolako mekanismorik abian jarri. Ez da zilegi udalengan halako eragina izango duen egitasmo bat aurrera eramateko udalen parte-hartzerik ez bilatzea.

Este Proyecto de Ley Municipal llega tarde. El Gobierno Vasco ha tardado 35 años en ponerlo en marcha. Y después de todo ese tiempo, en lugar de hacer las cosas correctamente y ceder el protagonismo a los ayuntamientos, lo ha puesto en marcha con muchas prisas. Después de un periodo de tiempo tan largo, merecía que se debatiera con tranquilidad, con amplitud y con profundidad qué tipo de modelo municipal deseamos. En lugar de eso, se han impuesto el interés político del momento y las "prisas". No se ha puesto en marcha ningún mecanismo para escuchar directamente la voz de los representantes municipales y recoger sus aportaciones. No es lícito no buscar la participación de los ayuntamientos para llevar adelante un proyecto que tendrá una influencia tan marcada sobre ellos.

Lege egitasmoak parte-hartzeaz asko hitz egiten du. Aldiz, legearen kudeaketan lege honen onuradun/kaltetu nagusi izango direnei ez zaie parte hartzeko aukera berezirik eman. Legearen lanketan ez da udalen kezka, behar edo iradokizunik jasotzeko ahaleginik egin. Legearen prozedura parlamentarioan ere ez da norabide horretan urratsik aurreikusten. Udalen ordezkaritza guztia EUDELen esku uzten da. Zoritxarrez, gaur egun EUDELk ez ditu EAEko udal guztiak ordezkatzen. Udal eta udal ordezkarien parte-hartzea ezin daiteke soilik EUDELen ekarpenetara mugatu. Udaletan lanean dihardruen kidegoarengana zabalduko diren bestelako mekanismoak ezinbestekoak

El proyecto de ley habla mucho de participación. Por contra, no se les ha dado una especial opción para poder participar en su gestión a los principales beneficiarios/perjudicados de esta ley. No se ha hecho ningún esfuerzo por recoger las inquietudes, las necesidades o las sugerencias de los ayuntamientos en la elaboración de la ley. No se prevé ningún paso adelante en esa dirección en el procedimiento parlamentario de la ley. Se deja toda la representación de los ayuntamientos en manos de EUDEL. Desgraciadamente, EUDEL no representa hoy en día a todos los ayuntamientos de la CAV. La participación de los ayuntamientos y de los representantes municipales no puede limitarse únicamente a las

dira. Gainontzean, egitasmo honek hastapenetik konpon gaitza den arazoa izango du bere baitan.

aportaciones de EUDEL. Son indispensables otros mecanismos que se abran al cuerpo de la administración que desarrolla su trabajo en los ayuntamientos. De lo contrario, este proyecto guardará en su interior un problema de difícil solución desde un principio.

Horregatik guztiagatik, Getxoko Udaleko Osoko Batzarrari honako puntu hauek onartzea proposatzen zaio:

Por todo ello, se propone la aprobación de los siguientes puntos al Pleno Municipal del Ayuntamiento de Getxo:

1. Getxoko Udalak Jaurlaritzari lege egitasmoaren prozeduran epe luzapen bat egin dezala eskatzen dio, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udalei ekarpenak egin ahal izateko aukera irekiz.

1. El Ayuntamiento de Getxo solicita al Gobierno Vasco que aplique una prórroga del plazo en el procedimiento del proyecto de ley, abriendo la posibilidad a los ayuntamientos de Gipuzkoa, Bizkaia y Araba para que puedan realizar sus aportaciones.

2. Getxoko Udalak, Jaurlaritzari Udalen aldetik egiten diren ekarpenak bideratu, sakondu eta eztabaidatzeko prozedura aurkeztu dezan eskatzen du.

2. El Ayuntamiento de Getxo solicita al Gobierno Vasco que presente el procedimiento para orientar, profundizar y debatir las aportaciones que se realicen por parte de los ayuntamientos.

3. Getxoko Udalak, mozio honen zioen atalean aipatzen diren gaien inguruan eztabaidatu, irizpideak adostu eta ondorioak bideratzeko bitartekoak jartzeko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari.

3. El Ayuntamiento de Getxo solicita al consejero de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco que disponga los medios necesarios para debatir en torno a los temas que se citan en la exposición de motivos de esta moción, para acordar criterios y para reconducir las consecuencias.

4. Getxoko Udalak, Udal zein Toki Entitateen autonomia indartzeko norabidean urratsak emateko deia egiten du. Orain artean udalak, egitura instituzionalaren azken terminalak izan dira eta egoera hori aldatzea funtsezkoa da. Subsidiaritate Printzipioa oinarritzat hartuta, herritarrengandik gertuen dauden instituzioak izanik,

4. El Ayuntamiento de Getxo hace un llamamiento para que se den pasos adelante en la vía del fortalecimiento de la autonomía tanto de ayuntamientos como de instituciones locales. Hasta ahora, los ayuntamientos han sido las últimas terminales de la estructura institucional y resulta fundamental modificar esa situación. Tomando como

Udalak zein gainerako Toki Entitateak sendotzearen aldeko apustua egitea ezinbestekoa da.

base el Principio de Subsidiariedad, siendo las instituciones más cercanas a la ciudadanía, es indispensable apostar en favor del reforzamiento de los ayuntamientos y de las restantes instituciones locales.

5. Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburuari bideratuko zaio.

5. Este acuerdo será remitido al consejero de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco.

Maitane Nerekanek esan du ez direla sartuko mozioaren eztabaidan, EH Bildu Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri gehienetan aurkezten ari den mozioa baita, eta Getxon ere planteatu dutela, lege proiektu horrek udalerrietarako duen garrantziarengatik.

Maitane Nerekan indica que no van a entrar en el debate de la moción ya que se trata de una moción que EH Bildu está presentando en la mayoría de municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que también la plantean en Getxo, por la trascendencia que tiene para los municipios dicho proyecto de ley.

Luis Almansak adierazi dio Bilduri ados dagoela mozioan, legea berandu datorrela adierazten duenean. Gogora ekarri du sozialistak agintean zeudenean proiektu bat aurkeztu zela eta ez zuela aurrera egin Bilduk EAJrekin eta PPrekin bat egin zuelako, ebazpen batzordeari hiru helegite aurkezteko. Azkenean arrazoia eman zioten gobernuari, baina izapideak bideratzea atzeratu zuten eta horrek onartzea eragotzi zuen. Esan du, gainera, EUDELek Euskadiko 251 udalerrietatik 231 ordezkatzen dituela, nahiz eta Bilduk ez izan gogoko. Lege proiektuaren testuari dagokionez, gabeziak dituela uste du, hala nola eskumenak ez dituela argitzen, gobernu bati eta gardentasunari dagokionez, garapen eskasa du, udalerriek Finantzen Euskal Kontseiluan eta baliabideak banatzean parte-hartzearekin lotuta, aurreko proiektuekiko atzera egitea dakar, eta, euskarari dagokionez, Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Legean lortutako adostasunetik urruntzen da.

Luis Almansa indica a Bildu que está de acuerdo en la moción respecto a que la ley llega tarde. Recuerda que en el gobierno socialista se presentó un proyecto que no salió porque Bildu se alió con el PNV y el PP para presentar tres recursos a la comisión arbitral que finalizaron dando la razón al gobierno, pero supusieron un retraso en la tramitación que imposibilitó su aprobación. Manifiesta también que EUDEL representa a 231 de los 251 municipios de Euskadi aunque a Bildu no le guste. Respecto al texto del proyecto de ley estima que tiene carencias, como la falta de clarificación competencial, su escaso desarrollo respecto a un gobierno y transparencia, el retroceso respecto a proyectos anteriores en relación a la participación de los municipios en el Consejo Vasco de Finanzas y en la distribución de los recursos y que también respecto al euskera se aparta de consenso logrado en la Ley de Normalización del Uso del Euskera. Indica que los socialistas no están de acuerdo con parte de los

Zehaztu du sozialistak ez daudela ados lege proiektuaren edukien zati batekin, baina horretarako dagoela Legebiltzarrean zuzenketak aurkezteko izapidea. Kritikatu du mozioak planteatzen dizkiola Eusko Jaurlaritzari bere esku ez dauden kontuak, proiektua jada Legebiltzarrean baitago. Han ari dira izapideak bideratzen eta Bilduk han baditu ordezkariak eta haiek eragin dezakete eztabaidan. Amaitzeko, esan du mozioa idaztean ahaztu zaiela Bilduk, PSE-EE eta beste talde batzuekin batera, hitzartu zuela Eusko Legebiltzarrean zenbait erakunde agertzea eta mozioan eskatzen dela haiek kontuan hartzeko.

contenidos del proyecto de ley pero que para ello está el trámite de enmiendas en el Parlamento. Critica que la moción plantea al Gobierno Vasco cuestiones que no están en su mano, ya que el proyecto está ya depositado en el Parlamento, donde se está tramitando y donde Bildu tiene representantes que pueden incidir en el debate. Finaliza indicando que al redactar la moción se les ha olvidado que Bildu juntamente con el PSE-EE y otros grupos acordaron que en el Parlamento Vasco comparecieran diversas instituciones a las que en la moción se pide se tengan en cuenta.

Marisa Arruek adierazi du ados dagoela proiektua berandu datorrela esatean. Bere ustez, Euskadin udalen legerik ez egotearen arduraduna EAJ da, 35 urtean ez baita gauza izan Eusko Legebiltzarrean proiektu bat aurkezteko. Gehitu du orain, legea bideratzen ari direnean, Bildu, aktiboki parte hartu ordez, kritika anbiguoak egiten ari dela edukiaren eta parte hartzeko mekanismoen gainean. Zehaztu du EUDELek euskal udalerri gehienak ordezkatzen dituela, eta Udalbiltzak, berriz, 38 udalerri baino ez, denak agintean ezker abertzalea dutenak. Gogora ekarri du Udalbiltzako lehendakaria Eusko Legebiltzarrean agertu zela, gai honetaz aritzeko. Esan du, gainera, 2013aren amaieran Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko Legea eman zela argitara eta horrek udalen legeen edukiei eragiten diela. Nahiz eta Bilduk Estatuko araudiari intsumisioa egiten dion, alderdi hori agintean duten zenbait erakunde men egiten ari zaie legeei, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Marisa Arrúe manifiesta que comparte que el proyecto llega tarde y que los responsables de que no haya ley municipal en Euskadi es el PNV que en 35 años ha sido incapaz de presentar un proyecto al Parlamento Vasco. Manifiesta que ahora que la ley se está tramitando Bildu en vez de participar de forma activa en el Parlamento se dedica a realizar críticas ambiguas acerca del contenido y de los mecanismos de participación. Expone que Eudel representa a la mayoría de los municipios vascos mientras que Udalbiltza sólo representa a 38 municipios, todos ellos gobernados por la izquierda abertzale y recuerda que la presidenta de Udalbiltza compareció ante el Parlamento Vasco sobre esta cuestión. Manifiesta también que a finales de 2013 se ha publicado la Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local que afecta a los contenidos de las leyes municipales y que aunque Bildu practique la insumisión a la normativa del estado, algunas instituciones en las que gobiernan si acatan las leyes como el caso de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Koldo Iturbek adierazi du mozioa aurkezteak atentzioa ematen diola, udal hauteskundeen atarian baikaude. Gaineratu du Bilduk Eusko Legebiltzarraren akordio bat babestu zuela, Eusko Jaurlaritzari epe bat jartzeko legea aurkezteko, eta Eusko Jaurlaritzak epea bete zuela. Eta, horrez gain, lege proiektua egiteko Eusko Jaurlaritzak lanerako talde bat eratu zuen eta hartan parte hartu zuten foru aldundiek, EUDELek eta bai Udalbiltzako ordezkariek ere. Amaitzeko, gehitu du orain proiektua Legebiltzarrean dagoela eta hor egin behar direla ekarpenak, Jaurlaritzaren Irekia atarian herritarrek iradokizunak aurkezteko daukaten aukera gorabehera.

Koldo Iturbe indica que le llama la atención la presentación de la moción cuando se está en puertas de las elecciones municpales. Recuerda que Bildu apoyó un acuerdo del Parlamento Vasco que puso un plazo al Gobierno Vasco para presentar la ley, plazo que el Gobierno Vasco cumplió, y que para la realización del proyecto de ley el Gobierno Vasco formó un grupo de trabajo en el que participaron las diputaciones forales, Eudel y también representantes de Udalbiltza. Finaliza indicando que ahora el proyecto está en el Parlamento y ahí deben realizarse las aportaciones independientemente de que en el portal Irekia del gobierno los ciudadanos puedan presentar sugerencias.

Mozioa bozkatu da eta ez da onartu, aldeko botoak 4 izan baitira (Bildu) eta aurkakoak 21 (EAJ, PP, PSE-EE).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 4 votos a favor, Bildu; 21 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

**55.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO BIDEGORRIEN SARERAKO SEINALETIKA.**

**55.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/SEÑALÉTICA PARA LA RED DE BIDEGORRIS DE GETXO.**

Roberto Martin jaunak mozioa irakurtzen du.
Mozioa bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 6 boto –Bildu, PSE-EE– eta 19 abstentzio –EAJ, PP–.

Roberto Martín da lectura a la moción.

Sometida a votación obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor, Bildu, PSE-EE y 19 abstenciones, PNV, PP.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioa:

En consecuencia, por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Getxok bizikleta garraio tresna bihurtzeko egin duen apustua ezaguna da getxoztar gehienentzat. Bere bidegorri sarea handituz Getxok herri sostengarriagoa izan nahi du, bai eta

Para la mayoría de getxotarras es conocida la apuesta que Getxo ha hecho en favor de la bicicleta como modo de trasporte. Con su red de bidegorris Getxo quiere ser una ciudad más

eredu europarretara hurbildu ere non bizikletaren erabilpena nabarmena eta egunerokoa den, oso praktikoa delako.

sostenible, y también acercarse a los modelos europeos donde el uso de la bicicleta es notable, cotidiano, por ser muy práctico.

Baina Getxoko bidegorri sareak gabezi batzuk dauzka, batez ere, autoentzat diseinatutako herria bizikletaz ibiltzeko eraldatzeak sortzen dituenak.

Pero la red de bidegorris de Getxo tiene varias carencias, sobre todo las que crea la transformación para andar en bici de una ciudad diseñada para el coche.

Alde batetik, kalitate ezberdineko bidegorriak ditugu, berez batzuk ez bait dira bidegorriak baizik eta bizikletaz ibili ahal izateko errepide moldatuak edo motelduak. Hauek erabilpen partekaturako (auto-bizikleta) tarteak dira. Horren adibide dira Villamonte, Cervantes, Máximo Agirre eta beste kale batzuen eredua. Bide hauetan ez dugu ikusten haurrik bizikletaz ibiltzen, are gehiago, oso bizikleta gutxi ikusten dira. Berriz, Tomás Olabarriko kaia, Txopoeta etorbidea, Galeako errepideko bidegorriak ere baditugu. Hauetan txirrindulariari beste babes mota bat eskaintzen zaio eta segurtasun handiz ibil daiteke.

Por un lado tenemos bidegorris de diferentes calidades, de hecho algunos no son bidegorris sino carreteras transformadas o desaceleradas para poder andar en bici. Éstas son espacios para el uso compartido coche-bicicleta. Como ejemplo tenemos los de las calles Villamonte, Cervantes, Máximo Aguirre y otras. Por estos caminos no solemos ver niños andando en bici, de hecho se ven muy pocas bicicletas. En cambio también tenemos los bidegorris del muelle de Tomás Olabarri, La Avenida de los Chopos, la carretera de La Galea. Aquí se ofrece otro tipo de amparo al ciclista y se puede andar con mayor seguridad.

Bestetik, bidegorririk gabeko gune zabalak badira: Neguri-Algorta, Arrigunaga-San Nikolas, Tosu-Aizkorri. Getxoko Udaletxera bizikletaz etortzeko aukera argirik ez izatea deigarria da. Batzuen ustez, bizikletak udarako bakarrik diren arren, gauza bera gertatzen da Getxoko hiru hondartzetik bitara joan nahi dugunean, Arrigunaga eta Aizkorriko hondartzetaz ari gara.

Por otro lado hay zonas amplias sin cubrir: Neguri-Algorta, Arrigunaga-San Nicolás, Tosu-Aizkorri. Es llamativo no tener una opción clara de acceso por bicicleta al Ayuntamiento de Getxo. A pesar de que para algunos las bicicletas son sólo para el verano, sucede lo mismo cuando quieres ir a dos de las tres playas de Getxo, nos referimos a las playas de Arrigunaga y Azkorri.

Bidegorri sareko adarren arteko desloturak ere baditugu: Portu Zaharreraino doana (edo handik hasten dena), Telletxen hasten edo amaitzen dena; Galeara doana (edo handik hasten dena)... Leioa, Berango eta Sopelarekin badaude loturak baina

También tenemos desconexión entre los ramales de la red de bidegorris: el que va hasta o comienza en el Puerto Viejo, el que ¿empieza? o ¿termina? en Telletxe; el que va a la Galea o allí empieza… Hay conexiones con Leioa, Berango y Sopela pero no están

bidegorrian bertan ez daude seinalizatuta, eta esandako adarren hasiera amaierak ere ez daude seinalizatuta. Bidegorrian bertan dagoen informazioaren faltak txirrindulariak nahasten ditu eta beraien ibilbideetan okertzen dira.

señalizadas a pie de bidegorri. Esa falta de información que hay a pie de pista confunde a los ciclistas y hace que se pierdan en sus recorridos.

Nahiz eta Getxoko bidegorri sarea hobetzerik dagoen mozio honek bere helburua Seinaletika ezan finkatu nahi du. Behin baino gehiagotan jakinarazi digute atzerriko turista-txirrindulari batzuk galduta ikusi direla, edota ez zekitela Getxotik bizikletaz ibiltzen nondik nora joan behar ziren.

A pesar de haber un amplio margen de mejora en la red de bidegorris de Getxo esta moción quiere centrar su objetivo en la falta de señalética. Más de una vez nos han hecho saber que se han visto ciclo-turistas extranjeros perdidos, o que no sabían cómo ir en bici por Getxo de un sitio a otro.

Honengatik guztiagatik, gaur Osoko Bilkurari ondoko eskaerak helarazten dizkiogu onartuak izan daitezen:

Por todo ello, hoy hacemos llegar para su aprobación por el Pleno Municipal las siguientes peticiones:

1. Getxoko Udalak bidegorri sarea Seinaletika egokiaz hornitu dezala.

1. Que el Ayuntamiento de Getxo dote a la red de bidegorris de la señalética apropiada.

2. Bidegorri sareko Seinaletika berriak informazio argia eman dezala, erabiltzaileari bere kokapena eta nondik nora joateko aukera guztiak emanez. Era horretan, Getxoko bidegorri sareko adar ezberdinak eta horiek inguruko herrien adarrekin dituzten loturak ezagututa, erabiltzaileak bere ibilbideak bidegorrian bertan diseinatu ahalko ditu.

2. Que la nueva señalética de la red de bidegorris informe claramente al usuario sobre su localización y sobre todas las opciones de origen y destino. De este modo, podrá diseñar sus recorridos a pie de pista, informándose sobre las conexiones entre los ramales de Getxo y con los ramales de municipios del entorno.

Koldo Iturbek justifikatu du abstentzioa, esanez mozioak Bilduren hauteskunde programaren zati bat hartzen duela eta horri aurre egin behar zaiola hauteskunde kanpainan, eta ez Udalaren osoko bilkuran.

Koldo Iturbe justifica la abstención en que la moción traslada parte del programa electoral de Bildu que debe ser confrontado en la campaña electoral y no en el Pleno del Ayuntamiento.

Jesús Tocak esan du deigarria egiten zaiola mozio bat aurkeztea, 2012an, alderdi popularrak bidegorriak arautzeko ordenantza bat planteatzeko

Jesús Toca manifiesta que les llama la atención que presenten una moción cuando el año 2012 el grupo popular presentó una moción planteando una

mozioa aurkeztu zuenean, Bildu abstenitu egin baitzen. Aitortu du mozioan agertzen diren zenbait gauzarekin ados egon daitezkeela; dena den, arazoak dituzten hainbat kale ahaztu dituzte eta irrigarria iruditzen zaio mozioa hauteskundeen atarian aurkeztea.

ordenanza para regular los bidegorris y Bildu se abstuvo. Reconoce que la moción recoge cosas con las que pueden estar de acuerdo, aunque olvidan algunas calles problemáticas y le parece ridículo que presenten la moción en puertas de las elecciones.

**56.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EB-REN MIGRAZIO-JOKABIDEAK GAITZESTEKO UDAL ERAKUNDEAREN ADIERAZPENA.**

Bilduk esan du mozioa baztertu egingo duela, Bozeramaileen Batzordean, gai honen beraren gaineko erakunde adierazpen bat onartu baitute.

**56.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE CENSURA A LAS POLÍTICAS MIGRATORIAS EUROPEAS.**

Bildu indica que van a proceder a retirar la moción porque ha sido aprobada una declaración institucional con un contenido sobre la misma cuestión en la Junta de Portavoces.

**57.- GETXO-BILDU ETA PSE-EE ALDERDIETAKO UDAL TALDE POLITIKOEK BATERA AURKEZTUTAKO MOZIOA: KONTZILIAZIOAREN BIDEAN, HAURTZAINDEGI ZERBITZUA UDAL EKINTZETAN.**

Arantza Gutiérrezek mozioa irakurri du, eta zehaztu du EH Bilduk eta PSE-EEk aurkeztu dutela eta Algortako Bilgune Feminista, Mujeres con Voz, Roda eta Gizatiar udalerriko elkarteen izenean ere egin dela. Gaineratu du mozioa otsailean aurkeztea aurreikusita zegoela, baina atzeratu egin dela Berdintasun Kontseiluko kide diren elkarteekin landu nahi zutelako. Horregatik ageri omen da mozioaren lehen paragrafoa, martxoaren 8ari buruzkoa. Adierazi du, beste gai batzuetan Getxo udalerri aitzindaria bada, honetan ere izan beharko lukeela eta mozioaren helburua hori dela. Onartzen bada, Berdintasun Kontseilura bidali beharko da, han

**57.- MOCIÓN CONJUNTA DE LOS GRUPOS MUNICIPALES BILDU Y PSE-EE S/ POR LA CONCILIACIÓN, SERVICIO DE GUARDERÍA EN LAS ACTIVIDADES MUNICIPALES.**

Arantza Gutiérrez da lectura a la moción, que manifiesta esta presentada por EH Bildu, PSE-EE y también en nombre de Algortako Bilgune Feminista, Mujeres con Voz, Roda y Gizatiar, asociaciones del municipio. Dice que la moción estaba previsto presentar en febrero pero se ha retrasado porque querían confrontrla con asociaciones integrantes del Consejo de Igualdad y que por eso consta el primer párrafo de la moción relativo a la fecha del 8 de marzo. Manifiesta que si en otras cuestiones Getxo es un municipio pionero también podría ser en esta cuestión que es lo que pretende esta moción, que de ser aprobada debe ser remitida para su

lantzeko.

tratamiento al Consejo de Igualdad.

Alderdi popularraren izenean, Raquel Gonzálezek eskatu dio Bilduri mozioa baztertzeko eta Berdintasun Kontseiluan aurkezteko. Gaia kontseilu horretan landu ondotik, aurkez dezala eguneko aztergai gisa, ez mozio moduan, alkateak ez baitu betetzen mozioen atalean onartzen dena.

Raquel González en nombre del grupo popular pide a Bildu que retire la moción y que la lleve al Consejo de Igualdad y que tras tratarse el tema en dicho consejo sea presentada como asunto del orden del día y no como moción ya que el Alclade no suele cumplir con lo que se aprueba en el apartado de mociones.

Arantza Gutiérrezek adierazi du ez duela baztertuko mozioa. Bere ustez, garrantzitsua da Udalbatzak horren gainean eztabaidatzea eta ondoren bidaltzea Berdintasun Kontseilura. Gainera, gogora ekarri du udalerriko hainbat elkarteren izenean ere aurkeztu dela mozioa.

Arantza Gutiérrez manifiesta que no retira la moción y cree importante discutir en el Pleno y luego trasladarlo al Consejo de Igualdad. Además también recuerda que la moción se presenta en representación también de asociaciones del municipio.

Mozioa bozkatu da eta emaitza hau izan da: aldeko 6 boto –Bildu, PSE-EE– eta 19 abstentzio –EAJ, PP–.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor, Bildu, PSE-EE; 19 abstenciones, PNV, PP.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioa:

En consecuencia, por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Egun gutxi barru, martxoaren 8an, mundu osoan, baita Getxon ere, Emakumeon Nazioarteko eguna ospatuko dugu. Erakundeetatik zein gizarte zibiletik, ospakizun horren aitzakia erabili ohi dugu, emakumeen eskubide urraketak salatu eta eskubide berdintasuna aldarrikatzeko.

Dentro de unos días, el 8 de marzo, al igual que en el resto del mundo, en Getxo celebraremos el Día Internacional de las Mujeres. Desde las instituciones y la sociedad civil aprovechamos esta celebración para denunciar los ataques a los derechos de las mujeres y reivindicar la igualdad de derechos.

Zaintza eta gizarte bizitza zein lan bizitzaren arteko partekatze osasuntsua da mugimendu feministatik zein erakundeetatik azken urteetan jorratu den lan ildoetako bat: kontziliazioa. Argi dago, zaintza lanen barruan, mota askotakoak sartzen ditugula: pertsona nagusien zaintza, gaixotasunak dituzten pertsonen zaintza… baita

En los últimos años, desde el movimiento feminista se ha impulsado una línea de trabajo sobre la corresponsabilidad y la conciliación saludable de los cuidados y la vida social y laboral. Dentro de los cuidados incluimos muchos tipos diferentes: los de las personas mayores, dependientes, enfermas, así como la de las hijas e

seme-alaben zaintza ere. Azken honi dagokionez, oraindik ere emakumeak dira kasu gehienetan seme-alaben zaintzaren parte handienaz arduratzen direnak. Hori aldatzeko pauso txikiak eman eta pauso handiagoak borrokatzen ari badira ere, errealitate bat da oraindik ere gaur egun. Errealitate horrek askotan, soldatapeko lanarekin, lan bolondresarekin, militantzia politikoarekin, kirolarekin zein beste bizitza esparruekin bateratzeko arazoak sortzen dizkie emakumeei.

hijos. En este último caso, el cuidado recae, todavía hoy, sobre todo en las madres. Se están dando pequeños pasos y grandes luchas para que esta realidad cambie, pero todavía existe y en muchas ocasiones obstaculiza que las mujeres accedan a un puesto de trabajo remunerado, o puedan compatibilizarlo con un trabajo voluntario, la militancia política o la práctica de un deporte u otra actividad.

Udal honetan adibidez, emakumeei ere zuzenduak dauden hainbat tailer, kirol ekitaldi, hitzaldi, "parte hartze" foro eta bestelakoak antolatzen dira. Baina, oraindik ere, ez da kontuan hartzen badagoela jende asko, seme-alaben zaintzaz arduratu behar izateagatik, horietan parte hartu ezin duena, gehienetan ez baita haurtzaindegi zerbitzua jartzen. Berriki jakin dugunez, Getxoko ikastetxeetan ematen diren "Guraso eskoletan" ere ez dela zerbitzu hori eskaintzen.

En este municipio, por ejemplo, se organizan gran cantidad de talleres, actividades culturales, charlas, foros de participación en los que las mujeres podemos participar. Sin embargo, todavía muchas personas, mayoritariamente mujeres, no pueden participar en esas actividades debido a que no se les oferta un servicio de guardería. Por ejemplo, hemos sabido que no se oferta ese servicio en las "Escuelas de padres y madres" que se celebran en los colegios.

Arazo horrek konponbide erraza du: haurtzaindegi zerbitzua eskaintzea udalak antolatzen dituen ekimen guztietan. Horrela eskatu dute behin baino gehiagotan herri honetako zenbait emakume elkartek zein herritarrek. Udal honen kontziliazio politikan salto kualitatiboa suposatuko lukeen neurri honek bi helburu beteko lituzke: kontziliazioaren bidean, getxoztarrei (eta batez ere emakumeei) udalak antolatzen dituen ekimenetan parte hartzeko bidea zabaltzea alde batetik eta, lanpostuak sortzea bestetik.

Este problema tiene fácil solución: la oferta por parte del Ayuntamiento de un servicio de guardería gratuito en todas las actividades que organice. Así lo han solicitado algunas asociaciones de mujeres y vecinas y vecinos. Este servicio supondría que este municipio da un paso cualitativo en pro de la conciliación y cumpliría dos objetivos: gracias a la conciliación, abrir la participación de la ciudadanía, especialmente de las getxotarras, en las actividades organizadas por el ayuntamiento, y, por otra parte, crear puestos de trabajo.

Horregatik ondoko proposamena luzatzen diogu Osoko Bilkurari onartua

Por todo ello, proponemos a este Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

izan dadin:

1. Getxoko Udalak diru partida bat gorde dezala 2015ean, udalak antolatzen dituen foro, hitzaldi, tailer eta bestelako ekintza guztietan, haurtzaindegi zerbitzua eskaini ahal izateko.

2. Lan poltsa bat zabaldu dezala, beharrezko baldintzak zehaztuz, nahi duten pertsona guztiak izena eman dezaten begirale lana egiteko.

3. Neurri hau Berdintasun Kontseiluaren onespenaz egin dadila, hurrengo bilerara proposamen bezala eramatea bertan aztertu eta egokia ikusiz gero, onetsia izan dadin.

Keltse Eigurenek justifikatu du bere alderdiaren abstentzioa, esanez, mozioaren azpian datzan gaiarekin ados dauden arren, gogora ekarri nahi dutela Gobernu Taldeak haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen duela berdintasun zerbitzuak eta bai beste zerbitzu batzuek ere eskaintzen dituzten jardueretan. Gainera, bere iritziz, hau ez da une aproposa mota honetako proposamenak egiteko; alderdi bakoitzak halako gaiak bere hauteskunde programan planteatu behar baititu. Amaitzeko, gehitu du mozioaren lehenbiziko paragrafoa idatzi izana ez zaiola zuzena iruditzen eta aurkeztu duten taldeek paragrafo hori kentzeko lana egin beharko zutela.

1. Que el Ayuntamiento de Getxo guarde una partida de dinero para poder ofrecer servicio de guardería en todos los foros, charlas, talleres y cualquier tipo de actividades abiertas a la ciudadanía.

2. Que abra una bolsa de trabajo, estableciendo una serie de requisitos, en los que se puedan inscribir todas las personas que deseen realizar el trabajo de monitor/monitora.

3. Que estas medidas se tomen con el acuerdo del Consejo de Igualdad, por lo que solicitamos que se estudie en el mismo y, en caso de considerarla oportuna, se apruebe.

Keltse Eiguren justifica la abstención de su grupo en que aunque compartan la cuestión que subyace en la moción recuerdan que el equipo de gobierno ofrece servicio de guarderías en las actividades que organiza el servicio de igualdad y también otros servicios. Cree que tampoco este no es el momento para este tipo de propuestas sino que estas cuestiones deben de plantearlas cada grupo en su programa electoral. Finaliza indicando que no le parece redacción correcta la del primer párrofo de la moción y que los grupos políticos que la han presentado deberían de haberse tomado el trabajo de suprimir dicho párrafo.

## GALDE-ESKEAK

Jesús Tocak hartu du hitza, Udalbatzako kideei agur esateko. Hasteko, udal langile funtzionarioei euren jokaera eskertu die, Udalbatzako kide gisa egin beharreko lana erraztu

## RUEGOS Y PREGUNTAS

Jesús Toca toma la palabra para despedirse de los corporativos. Inicia su intervención agradeciendo a los funcionarios del ayuntamiento su coportamiento ya que les ha facilitado

baitiote. Gero, legegintzaldi honetako eta aurrekoetako udalbatzetako kideei eskerrak eman dizkie. Barkamena eskatu die uneren batean iraindu baditu, ez baitzen hori bere asmoa, eta bereziki Marisa Arrueri eman nahi dizkio eskerrak, elkarrekin jardun baitira lanean 24 urtean. Bukatzeko, esan du modu berezian oroitzen duela Udalbatzako kide bat, lagun min egin zena, nahiz eta beste talde batekoa zen: José Luis Isla.

su trabajo como corporativo. También agracede a los compañeros de corporación de esta y anteriores legislaturas, pidiendo disculpas si en algún momento les ha ofendido ya que no ha sido nunca su voluntad y agradece especialmente a Marisa Arrúe con la que ha compartido labores en el ayuuntamiento durante 24 años. Finaliza guardando un recuerdo especial para un corporativo que se hizo un gran amigo suyo aunque fuera de otro grupo como fue José Luis Isla.

Alkateak erantzun du egin duen esku-hartzeak ohoratzen duela eta onartzen duela, nortasun handiko gizona bada ere, izaera handikoa ere badela, eta horri eman behar zaiola garrantzia, eta urte askoan lan konprometitua egin duela, bere ikuspegitik, getxotarren alde. Alkate den aldetik, hori aitortu eta eskertzen du, eta egungo eta lehenagoko udalbatzen izenean egiten du.

Contesta el Alcalde indicando que le honra la intervención que ha realizado y que reconoce que es un hombre de carácter pero con un gran fondo que hay que poner en positivo y con muchos años de trabajo comprometido, desde su visión, a favor de los vecinos de Getxo, que como Alcalde reconoce y agradece y también lo hace en nombre de la actual y anteriores corporaciones.

Ondoren, Luis Almansak hartu du hitza, ondokoa esateko:

Luis Almansa interviene para manifestar los siguiente:

“Bere burua marxistatzat duen norbaitentzat, beharbada, ez da politikoki zuzena izango Abraham Lincolnen esaldi hau baliatzea esku-hartzea hasteko:

“Para una persona que se considera marxista tal vez sea políticamente incorrecto iniciar estas palabras con una frase de Abrahán Lincoln:

«Azkenean, axola duena ez da bizitzan egin den urte kopurua, baizik eta urteei eman zaien bizitza».
Nire ustez, ez dago herritarren alde lan egitea bezain atsegin-emailea den ezer. Eta gure sari handiena da ordezkatzen dugun herritar bakoitzak eta guztiek hautestontzietan ematen diguten babesa; gure izateko lehen eta azken arrazoia.
Baina, gauza guztiekin gertatzen den moduan, hasteak azkena dakar, garai

«AL final, lo que importa no son los años de vida, sino la vida de los años».
Creo que no hay nada más gratificante que trabajar para la ciudadanía, y nuestra mayor recompensa el apoyo en las urnas de todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas a los que representamos; nuestra primera y última razón de ser.

Pero, como ocurre con todo, lo que un día tuvo un principio hoy ha

batean hasi zena amaitu egingo da gaur. Osoko bilkura bat falta dela, saio honetako agiria onartzeko, behin egiten direnean hauteskundeak, 16 urteko erakunde ziklo bat amaitutzat emango dut, bere garaian esan nuen moduan, nire alderdiko hautagai berriro ez izateko erabakia hartuta.

Atzean gelditu dira pertsonalki pozik gelditzea eragin duten ageriko arrazoiak eta oposiziotik aurkeztutako udal ekimen ugari. Gobernu Taldearekin izan ditudan adostasunak eta desadostasunak, zor den erantzukizunetik eta leialtasunetik, betiere eta soil-soilik, gure herriaren onura eta herritarren ongizatea lortu nahiak eragindakoak.

16 urte bizi izan dira, horietako gehienak oso gogorrak, ETAren jazarpen terroristarengatik. Baina, hala ere, oroitzapen atseginak ditut, 1999. urteaz geroztik hurrenez hurrengo udalbatzak eratu ditugun kideen elkartasuna nagusi izan baita. Denak oso hurbilak izan direla onartu nahi dut, eta bereziki aurreko udalbatzetan kide izan zirenak eta jada hilda daudenak, hala nola Carlos Castellanos eta Mercedes Pérez, PPkoak; Manu Etxeberria, EAJkoa; Iñaki Urkiza, EBkoa; eta Ricardo Villanueva, laguna eta alderdikidea.

Era berean, udal langileek egiten duten lana ere aitortu nahi dut. Hemendik, nire aitortza eta esker ona adierazi nahi diet, erakutsi duten giza kalitatea eta kalitate profesionala bikaina izan baita eta nire zinegotzi lana asko erraztu baitute.

Amaitu baino lehen, hemen zaudeten eta hurrengo zerrendetan parte hartuko duzuenoi arrakasta osoa opa dizuet. Espero izatekoa da lanean hasiko den udalbatzak errepikatuko ez dugunok egin genuen ilusio berberarekin egingo duela lan, eta horretaz ziur nago.

encontrado el final. A falta de un último pleno, a efectos de aprobación del acta de esta sesión, una vez celebradas las elecciones, cierro un ciclo institucional de 16 años con mi decisión, como ya anuncié en su momento, de no volver a presentarme como candidato de mi partido.

Atrás quedan evidentes motivos de satisfacción personal y numerosas iniciativas municipales desde la oposición. Desacuerdos y acuerdos con el equipo de gobierno desde la responsabilidad y lealtad debida, motivados exclusivamente por la búsqueda de beneficio de nuestro pueblo y el bienestar de la ciudadanía.

Han sido 16 años intensos, la mayoría de ellos muy duros por el acoso terrorista de ETA, pero de los que, no obstante, guardo gratos recuerdos de solidaridad de todos los compañeros y compañeras que hemos ido conformando las sucesivas corporaciones desde el año 1999. Quiero reconocer la cercanía de todos, y en especial de los que fueron compañeros en anteriores corporaciones y han fallecido como, Carlos Castellanos y Mercedes Pérez, del PP; Manu Etxebarria del PNV; Iñaki Urkiza, de EB; y mi compañero de partido y amigo, Ricardo Villanueva

También quiero reconocer el trabajo que realiza el personal del Ayuntamiento. Desde aquí quiero transmitirles mi reconocimiento y gratitud por su calidad humana y profesional que han hecho mucho más fácil mi labor de concejal.

Acabo ya, no sin antes desear a los presentes que formáis parte de las próximas listas toda clase de éxitos; es de esperar que la corporación entrante lo haga con la misma ilusión con que –estoy seguro- lo hicimos los que no repetimos.

Eta esku-hartzea aipamen bat eginda abiarazi dudan moduan, amaitu ere hala egin nahi dut. Lagungarria izango ahal zaizue!
Arturo Graf idazle eta poeta italiarrak hau esaten zuen: «Bidezko politika egiteko, osasuntsua, ez da nahikoa gizon-emakumeak ezagutzea; maitatzea ere ezinbestekoa da»".

Y si con una cita di comienzo a mi intervención, con otra cita concluyo; ojala os sirva en vuestra labor.
Decía Arturo Graf, escritor y poeta italiano, que «para hacer política justa y sana no basta con conocer a los hombres; es necesario también amarlos».

Alkateak bere izenean eta Udalbatza osoarenean erantzun dio. Ezkerreko aukera politikotik herritarrekiko izan duen konpromisoa eskertu dio. Oposizioan aritu denean izan duen erantzukizuna ere eskertu dio eta gogorarazi dio udalerrian akordio garrantzitsu asko eratu dituela. Bere ustez, ohorea izan da, adostasuna giltzarri hartuta, udalerriaren onerako lan egitea.

El Alcalde contesta en su nombre y en el de toda la corporación agradeciéndole su compromiso con los vecinos desde su opción política de izquierda. También le agradece su responsabilidad desde la oposición y recuerda que ha forjado muchos acuerdos importantes en el municipio. Personalmente cree que ha sido un honor trabajar en clave de acuerdo en beneficio del municipio.

Bingen Saituak gogorarazi dio alkateari azken osoko bilkuran mozio bat aurkeztu zutela, kontratuei jarraipena egiteko organo bat sortzeko eskatzeko, baina erabaki zela ez zela beharrezkoa, funtzionarioek egiten duten lana delako. Horrez gain, esan du azken informazio batzordean planteatu dutela, gutxienez lau kontratu handiei dagokienez, arduradunek txostenak egitea, nola ari diren garatzen azalatzeko, eta gero Udalbatzako kideei aurkeztea. Batzordeko lehendakariaren erantzuna, ordea, izan zen fakturak sinatzeak berekin dakarrela zerbitzua egiten ari den moduarekin ados egotea. Erantzun hori, ordea, ez zaio nahikoa iruditzen, eta, horrenbestez, eskatu nahi dio alkateari, gutxienez, lau kontratu handien gaineko benetako jarraipena egin dadila. Hain zuzen, aldian behingo txostenak egin daitezela nahi du, haien gauzatze egoeraren gainean, eta gero oposizioko kideei ematea.

Bingen Saitua recuerda al Alcalde que en el último Pleno presentaron una moción en la que pedían la creación de un órgano de seguimiento de los contratos pero que se estimó no necesaria indicando es una labor que realizan los funcionarios. Indica también que en la última comisión informativa han planteado que, al menos respecto a los cuatro grandes contratos, los responsables realicen informes acerca de cómo se está ejecutando y se presenten a los corporativos pero la respuesta de la presidenta de la comisión fue que la firma de las facturas supone prestar conformidad a la forma de realización del servicio. Esta respuesta le parece insuficiente y, por tanto, pide al Alcalde que se realice un verdadero seguimiento de al menos los cuatro grandes contratos con ejecución de informes periódicos acerca del estado de cumplimiento de los mismos, informes que se faciliten a la oposición.

Alkateak erantzun dio gogoan hartuko duela eskaera, baina zehaztu dio legegintzaldian gelditzen den denbora oso eskasa dela.

El Alcalde le contesta que toma nota de la petición aunque le indica que el plazo que resta de legislatura es muy escaso.

Bilduren izenean, Maitane Nerekanek adierazi du alderdi horretako eta Udalbatzako kide diren lau pertsonetatik hiruk ez dutela jarraituko hurrengo legegintzaldian. Euren lana egiten lagundu dieten langileei eskerrak eman dizkie. Eta udal alderdiekin lotuta, esan du, bere iritziz, Udalbatzako kide batzuek Getxoren alde lan egiten dutela eta beste batzuk, berriz, Bilduk politika egiteko duen modu eta iritzitik oso urrun daudela. Era berean, eskerrak eman nahi dizkie EH Bildu babestu duten herritar guztiei. Herritar moduan iritsi omen ziren Udalera, eta hala joango dira. Izan ere, bere ustez, Udaletan herritar gehiagok parte hartu behar dute; ez, ordea, politikari profesionalek. Uste du beharrezkoa dela Udala herritarrei irekiko dieten Udalbatzako kideak izatea, eta espero du hurrengo legegintzaldian Getxon parte hartu ahal izatea baita beren borondatearen kontra Getxotik urrunduta dauden herritarrek ere.

Maitane Nerekan en nombre de Bildu indica que tres  de los cuatro actuales corporativos no van a seguir en la siguiente legislatura. Agradece a los empleados que les han ayudado en su trabajo y en relación a los grupos municipales manifiesta que han encontrado corporativos que estima que trabajan por Getxo y otros que se hallan muy lejos de la concepción de hacer política que tiene Bildu. Agradece a todos los vecinos que han apoyado a EH Bildu y que como vecinos llegaron al ayuntamiento y así se marchan y cree que a los ayuntamientos deben de acceder más vecinos y no políticos profesionales. Estima que es necesario que accedan corporativos que abran el ayuntamiento a los vecinos y espera que en la próxima legislatura puedan también participar en Getxo vecinos que contra su voluntad están alejados de Getxo.

Alkateak esan dio Bilduri zenbaitetan ez duela jakin zinegotzien lanari balioa ematen eta zenbaitetan, gainera, haien eginkizuna gutxietsi duela. Baina ontzat jotzen du Bilduren lana, babesten duten herritarren iritziak eta irizpideak Udalera eramateko lana, ondoren eztabaidatzeko eta ados jartzeko, gehienen arau demokratikoen arabera.

El Alcalde manifiesta a Bildu que a veces no ha sabido valorar el trabajo de los concejales e incluso ha menospreciado algunas veces la función de los mismos, pero valora positivamente la labor de Bildu de trasladar al ayuntamiento las opiniones y criterios de los vecinos que le apoyan para su debate y posterior acuerdo en función de las reglas democráticas de la mayoría.

Gai gehiagorik ez dagoenez,

Y no habiendo otros asuntos de que

Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratzaldeko zortziak eta hamar minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las veinte horas y diez minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.